



BURUKETAK

1 Josebak 456 txapa zituen, baina lagun bati 432 eman dizkio. Zenbat txapa ditu orain?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ txapa ditu orain Josebak.

2 Endikak futboleko ehun eta hogeikromo ditu. Bilduma berrehun eta berrogeita bostekoa da. Zenbat kromo falta zaizkio Endikari bilduma osoa izateko?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ kromo falta zaizkio Endikari bilduma osoa izateko.

3 Bilera batean 315 lagun elkartuko dira. Hasi baino lehen, 125 gizon eta 98 emakume daude. Zenbat lagun falta dira?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ lagun falta dira.

4 Elefante eme batek 4.500 kilo ditu, eta umeak, berriz, amak baino 3.182 kilo gutxiago. Zenbat kilo ditu umeak?

Idatzi zenbakia jarraian milakoan punturik jarri gabe.

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ kilo ditu umeak.

5 8.540 lagunek eman dute izena maratoi batean parte hartzeko. 2.726 emakumeak dira. Zenbat gizonek hartuko dute parte maratoloan?

Idatzi zenbakia jarraian milakoan punturik jarri gabe.

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ gizonek hartuko dute parte maratoloan.

- 6 Astelehenean 125 lagunek eman zuten izena ibilaldi baterako; asteartean, 196k; eta asteazkenean, 275ek. Zenbatek eman dute izena guztira?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ lagunek eman dute izena guztira.

- 7 Tren batek 3 bagoi ditu, eta 5 kutxa daude bagoi bakoitzean. Hurrengo geltokian, beste bagoi bat gehitu diote, 5 kutxa ditu horrek ere. Zenbat kutxa daramatza orain trenak?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ kutxa daramatza orain trenak.

- 8 Elenak txikle bat eta karamelu bat erosi nahi ditu. Txikleak 78 zentimo balio du, eta karameluak, 35 zentimo. Zenbat diru behar du Elenak bi gauzak erosteko?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ euro eta _____ zentimo behar ditu bi gauzak erosteko.

- 9 Lehen Hezkuntzako 247 ikasle ibilaldi batera joan dira, 54 eserlekuko 5 autobusetan. Zenbat eserleku geratu dira hutsik?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: _____ eserleku geratu dira hutsik.